

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2019ko uztailaren 4an aurkeztuko du

Jesper Just: Ikuskizun izengabe hau

Jesper Just: *Ikuskizun izengabe hau*

- Datak: 2019ko uztailaren 4tik urriaren 20ra
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2019ko uztailaren 4tik urriaren 20ra, Guggenheim Bilbao Museoak *Jesper Just: Ikuskizun izengabe hau* aurkezten du Film & Video aretoaren 2019ko programazioaren barruan. Areto horretan, hainbat mugimendudun irudia, zinema esperimentalak eta bideo-instalazioarekin lotura duten arte-praktikak erakusten dira.

Oraingoan, Jesper Just (Kopenhage, Danimarka, 1974) artistaren bideoinstalazio bat da. Just oso ezaguna da nazioartean zinema-produkzio handietako baliabide ugari erabiltzeagatik eta filmaren egitura bisualki eta materialki berrinterpretatu nahi izateagatik.

Jesper Justen obrek zinemaren kulturarekin oso lotuta dauden kontzeptuak aztertzen dituzte —adibidez, voyeurismoa, hiriko bizitza eta genero-gatazkak—, eta zalantzan jartzen dituzte haien ohiko irudikapenak. Teknika zinematografikoaren eta instalazioaren berezko estrategiaak konbinatzen ditu artistak, eta inplikazio emozional konplexuak eta amaiera irekia duten kontakizun bisualak sortzen.

Ikuskizun izengabe hau (2011) izeneko bi kanaleko bideoinstalazioak William Carlos Williams idazle amerikarraren «The Right Way» poemari zor dio izena. Poetak eguneroko bizitzako egoera interesgabeen edertasun liluragarria goraiatzeko du: edonoiz eta edonon gure begi aurrean gertatzen diren fenomeno txiki horien «ikuskizun izengabe hori». Gertakari hutsal horiek edertasun zirraragarri bat dute, enigma aztoragarri bat, edo egia ahaztu bat.

Justen filma elkarren aurrean jarritako bi pantaila erraldoitan banatuta dago, eta Parisko Buttes-Chaumont parkean gertatzen den ekintza anbiguo eta ireki bat eskaintzen digute. Tarte labur batez, ustez ezezagunak diren bi pertsonaiak elkar aurkitzen dute beren bidean, eta elkarri begiratzen diote. Parez pare kokatuta dauden beren apartamentuen leihotik ere begiratzen diote elkarri, baina, azkenean, batek konortea galtzen du, beharbada eguzkiaren isla biziagatik, edo besteari begiratzeagatik, edo besteak begiratu egiten diolako. Gertakari horren anbiguotasuna areagotu egiten du protagonista Marie-France Garcia aktore eta abeslari transgeneroa izateak.

Pantaila panoramiko bikoitzaren bidez, Jesper Justen bideoinstalazioak, batetik, urbanismo modernoaren eta haren formen arteko dikotomia aztertzen du, eta, bestetik, begi zinematografikoaren istorioa, pertsonaien begiradaren eta kameraren mugimendu panoramikoaren artekoa. Istorioan ez da ia ezer gertatzen, baina giro dramatiko Hitchcocken filmetakoaren parekoa da ia, eta horrek are anonimoago bihurtzen ditu pertsonaiak.

Jesper Just. Biografia

Jesper Just Kopenhagen jaio zen 1974an, eta, egun, New Yorken bizi da. Haren obra banakako erakusketa garrantzitsu askotan egon da ikusgai nazioarteko erakunde ugarian; besteak beste, hauetan: MAAT Museum of Art Architecture & Technology (Lisboa), Kunsthal Charlottenborg (Kopenhage) eta, duela gutxi, Museo Anahuacali (Mexiko Hiria). Berez, artistak 2011n MAC/VAL museoan (Vitry-sur-Seine, Frantzia) eskaini zuen banakako erakusketarako egin zen *This Nameless Spectacle* obra.

Topaketa artistekin: Jesper Just (uztailak 4, 18:30)

Jesper Just *Ikuskizun izengabe hau* erakusketaren inguruan mintzatuko da Manuel Cirauqui Museoko arte arduradun eta Film & Video programaren komisarioarekin, eta kultura zinematografikoari lotutako kontzeptuak (voyeurismoa, hiriko bizimodua, genero-gatazkak...) berrinterpretatzeak artistari pizten dion interesa ere izango dute hizpide. Topaketa uztailaren 4an izango da, 18:30ean, Guggenheim Bilbao Museoko Entzungelan. Solasaldiaren ostean, mahai-ingurua izango da bertaratutakoekin.

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gunea da, eta Guggenheim museoetako bildumetan nahiz nazioarteko beste erakundeetan dauden obrak aurkeztea du xede. 2016an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak honako artista berdingabe hauen sorkuntzak izan ditu ikusgai, besteak beste: Christian Marclay, Ragnar Kjartanson, Rineke Dijkstra, Kimsooja, Shahzia Sikander, Sam-Taylor Johnson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel eta Pierre Huyghe. Michael Snow, Javier Téllez eta Diana Thater. Aurtengo udaberrian, Allora & Calzadilla-ren lana erakutsi zen.

Azaleko argazkia:

Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Jesper Just: Ikuskizun izengabe
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just



Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just



Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just



Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just



Jesper Just

Ikuskizun izengabe hau (This Nameless Spectacle), 2011

HD, bi kanaleko bideoinstalazioa aurrez aurre ezarritako bi pantailatan

Iraupena: 00:13:00 | 00:13:00

7 aleko edizioa

Eskaintza: Perrotin

© Jesper Just

